

noaia

**“Desentxufatuak”,
larunbatean
antzerkia Sutegin**

**“Baietz gurean”,
enpreetan euskaraz
aritzeko kanpaina**

**Behobia-Donostia
lasterketako
emaitzak**



**50. urteurrena
ospatuko du larunbatean**

Aginagako elkarteak

Hotzari aurre egiteko...



Goizero:
Kruasana edo
ogi xigortua



Arratsaldero:
Txokolatea
txurroekin

ARTZABAL

Puntapax 8, Usurbil 943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.com

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60


www.viviendaslanin.com



Albiste iruditzen

Euskararen Eguna, abenduako ekitaldien agendan

Baietz esan dute. Iaz bezala, urte osoan gogoan izan behar dugun Euskararen Nazioarteko Eguna Usurbilen ere ospatuko dela aurten, ekimenik izango dela alegia. Hala erabaki zuen azaroaren 4an, Potxoenean bildutako herri eragile talde batek. Datorren abenduaren 3an hitzordurik antolatu edo ez erabakitzeko elkartu ziren kultur etxean. Aipaturikoa, prestaketa lanei ekitea adostu zuten, Zumarte Musika Eskola, Dantza Taldea, Usurbilgo Gaztetxea, Jexux Artze Kultur Elkarte, NOAUA! Kultur Elkarte, Aginagako Eskola Txikia edota Udarregi Ikastolako ordezkariak. Astearte honetan, finkatuta uztekoak ziren zenbait ideia proposatu zituzten.



Azaroaren 4an batu ziren Potxoenean. Euskararen Eguna abenduaren 3an izango da.

Laburrean

Datorren astean, batzarra Txokoaldeko Erroizpen

Urteko batzarra ospatuko dute, azaroaren 23an, goizeko 11:00etan Txokoaldeko elkartean bertan. "Elkarteko zuzendaritzak dei egiten die bazkideei etor daitezen, urteko martxaren berri emango baita, diru kontuekin batera", elkartetik adierazi dutenez.

Odol emaleen eguna, abenduaren 8an

Odola ematera joandako boluntarioek euren eguna ospatuko dute abenduaren 8an. Antxeta jatetxean ospatuko dute aurten. Aurrez eman behar da izena. Abenduaren 2a baino lehen: 943 363 102 (Agustina), 943 366 040 (Maite), 943 370 723 (Jero), 943 372 487 (Marisol).

1952koen kinto bazkarian izena emateko epea, ixtear

Duela 62 urte jaiotako usurbildarren bazkaria azaroaren 30ean, 14:30etan Patri jatetxean. Menua 35 euro.

Izen emateko deitu 943 361 380 telefono zenbakira, azaroaren 19a asteazkena baino lehen.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Uclada



Euskal presoak

Euskal Herra!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Egin dezagun elkarrekin

Badator negua, hotza, haizea, ohetik ezin jaikitzea, galtzen azpiko alde bustiak, buelta ematen duten aterkiak. Egunerokotasun astunari gehitzen zaizkie horiek guztiak, eta ai, ze nagia ematen duten. Etxeko berora itzultzea bihurtzen da eguneko momenturik desiratuena, eta hori eragozten digun edozer da madarika-ziorako aitzakia.

Horregatik, eguneroko betebeharez gain, esfortzu gehigarri bat suposatuko digun edozeri ezetz esatea ez da harrigarria. Ulegarria da. Nahiko lan du bakoitzak bere buruarekin, eguneroko betebehaz eta buruhausteekin. Baina

egindako lanaren ondotik lortutako emaitzak ikusita, pasatako nagia, zailtasun eta estres guztiak segituan ahazten dira.

2015eko Kilometroak ez dago ate joka: sartu zaigu dagoeneko sukalderraino. Ondo sartu ere. Denbora asko falta da, baina lan asko dago egiteko, eta guztiok esfortzu gehigarri txiki bat egitea beharrezkoa izango da datozen hilabeteetan. Eta horri eskaintzen diogun denbora ezingo diogu eskaini beste zerbaiti, bistan denez. Baina denbora kenduko digula pentsatu baino, zergatik ez gelditu emango digunarekin?

Norbaitekin eskuz esku lan egiteak konplizitatea sortzen du, konfiantza. La-

nean jarraitzeko ilusioa eta motibazioa hortik datoz, gainera. Herri txikia da gurea, eta aitortzen dut askotan norbaiten inguruan hitz egiten hasten zaizkidanean ez dakidala zeini buruz ari ohi diren. Kilometroak antolatzen laguntzeko konpromisoa hartua dut, eta aitortu behar dut lanean nabilen jende asko orain arte bistaz soilik ezagutzen nituela; aurretik sekula ikusi gabekoak ere badira tartean.

Herrigintzaz hitz egitean, herritarren arteko harremanak sortu, landu, mantendu eta loratzeak ere berebiziko garrantzia du. Eta [urtarrilaren 1a baino lehenago heldu den] 2015ak asko

izango du alde horretatik. Urte luzea dator, distantzia luzeko maratoia. Gauza polit asko egin nahi ditugu, eta egingo ditugu, hobeto edo okerrago, baina ez da egongo bidea elkarrekin egitea baino gauza ederragorik. Bakoitzak ahal duen heinean, ez gehiago. Denon ekarpena, txikia izanda ere, handia izango da guztiontzat.

Ez nuke zutabe hau bukatu nahi Kataluniako galdeketak sortu didan inbidia aipatu gabe. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, ezta ere, Donostiako Zurriolan Gure Esku Dagok egindako mosaikoa: izugarria benetan. Baina gogoratu, ez bata ez bestea, ez lirakekeela posible izango herritarren bultzadarik gabe.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Luis Aranalde | **Maialen Unanue** | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

Ika-Mika

Eta orain zer?

Orain dela urte pare bat hasi zen dena. Udaletxetik deia jaso genuen esanez hilerrian, besteen artean gure aita lurperatuta zegoen lerroan, gorpuzkinak ateratzen hasi behar zituztela eta, gure senidea lurpetik atera baino lehenago, ea bertatik abisurik jaso nahi genuen. Galdera honi baietz erantzun genion, gure aitaren gorpuzkinak amaren errautsekin bate-

ra etxeko zuhaitz azpian jartzeko asmoarekin. Dei hori "benetan" mesedegarria eta oso eskertzekoa iruditu zitzaigun sendi guztiari. Baina, hara non, aurreko urteko santu guztien egunean, sekulako sorpresa hartu genuen, gure aita eta beste hildako batzuk lurperatuta zeuden lekuan identifikazioko plakak kendu zituztelako (gure ustez hilerriko bazter batean utzita). Hala ere,

gorpuek leku berdinean jarraitzen zuten.

Urte osoa kezka puntu batekin pasa dugu. Bai asmatu ere! Berriro iritsi da Santu guztien eguna eta... gure aitaren arrastorik ez! Eta orain zer? Ezer ere ez!!! Bartzuen axolagabekeriagatik gure aitaren hezurak edonongo zulo bazter batean daude.

Jakin ezazue gai hau oso deli-

katua dela askorentzat. Lan mota hau errespetu handiarekin egin behar dela, ez da makina batekin zuloa egitea soilik. Eta orain zer? Arduradunak bilaitzik! Gizartea gero eta ustelago dago, baina nori axola? Norberak jan ditzala bere arazoak besteen laguntzaren zain egon gabe.

Juan Jose Lizartza Arregi

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

 **TAXI**
24 h

ORAIN 8 PLAZA!

677 37 34 66 | Joxe
943 36 21 78 | Etxabe

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Osakidetza, greba egunen atarian

Osakidetza ordezkaritza duten SATSE, ELA, LAB, SME-FHH, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek, lan uztea deitu zuten azaroaren 6an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako osasun etxeetan. Azken urteotan langileek jasandako murrizketak salatu nahi zituzten. Azken hiru urteotan hain zuzen, 3.000 lanpostu suntsitu dira. Honez gain, 8.000 langile hilero behin-behineko kontratuekin dabilta lanean. 500 langilek hartzen dute erretiroa urtero. Zifra hauen aurrean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hurrengo bi urteotarako 474 lanpostuko enplegu deialdi publikoa egin du. “474 lanpostutako eskaintzaz hitz egitea lanpostu suntsiketa eta prekaritatearen aldeko apustua izateaz gain, gizarte osoari burla egitea da”, sindikatuen esanetan.

Anbulatorioan normaltasunez

Egoera honen aurrean, “galdutako enplegua berreskuratzeko, lan-karga onargarriekin lan egiteko, osasun zerbitzua hobetzeko eta soldata diskriminazioak kentzeko”



Azaroaren 20rako eta abenduaren 4rako greba egunak deitu dituzte sindikatuek.

lau orduko lan uztea deitu zuten aurreko astean. Usurbilgo anbulatorioan apenas izan zuen eraginik. Grebara joandako langileren bat salbu, normaltasun osoz joan zen eguna. Baina adi, datozen egunotan lan gatazka konpontzen ez bada, mobilizazioak gogortuko dituzte. Usurbilgo osasun etxean eragin zuzena izan dezaketen bi greba egun deitu baitituzte:

- Azaroak 20: greba eguna Gipuzkoan.
- Abenduak 4: greba eguna Osakidetza osoan.

Gazte lokalen parte hartze prozesua

Gazte lokalak arautzeko parte hartze prozesua martxan da:

Azaroak 12, asteazkena

Bilera helduekin: lokaletako jabe, bizilagun eta gurasoekin.

Azaroak 19, asteazkena

Bilera lokaletako erabiltzaileekin.

Azaroak 26, asteazkena

Tailerra gazte eta helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa. Adostasunak lantzea.

Abenduak 10, asteazkena

Tailerra gazte eta helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa. Adostasunak lantzea.

Bileren ordua: 19:00.

Bileren lekua: Potxoenea.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean.

200 usurbildar, Gure Esku Dago-ren mosaiko erraldoian

Zorionak Usurbil! Zorionak Euskal Herria!, sare sozialetatik hitzok in herritarrak zoriondu nahi dituzte Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak. Aurreikuspen guztiak gainditu ziren pasaden larunbatean Zurriolan. 10.000 lagun bildu ziren kataluniarren eta euskaldunon erabakitze eskubidea aldarrikatzeko mosaiko erraldoian. Tartean, 200 usurbildar! Antolatzaileek iragarri dutenez, “hau hasi besterik ez da egin!”.



Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak ere hartu zuen parte ekitaldian.

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Tratu ona sustatzeko lanean



Ikastetxeetako ikasleekin indarkeria sexista prebenitzeko lanean dihardute.

Harreman parekideak sustatu eta indarkeria sexista prebenitzeko hezkidetzeta programa martxan du beste ikasturte batez, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Arremanitz kooperatibak kudeatzen du egitasmoa.

Ikastetxeetako ikasleekin indarkeria sexista prebenitzeko lanean dihardute Arremanitz-ekoek, pertsonen arteko tratu ona lantzen, "gezurra badirudi ere, tratu txarra oso normaldua dago-eta". Tratu ona lantzea da, Clara Wolfram, Arremanitz kooperatibako kidearen esanetan, "indarkeriazko harremanak saihestu eta harreman parekideak eta osasuntsuak eraikitzeke prebentzio onena".

Lanketa ikasleekin egiten dute, banaka, taldean. Norberak bere buruarekin eta inguruarekin duen harremana nolakoa den aztertzen dute. Talde barruan, neska-mutilak nola harremantzen diren.

Harremanetan, ezinbestean, denok barneratuak izan, auzitan jarri edo onartzen ez ditugun eta tratu onen etsai nagusiak diren aurreiritziak agertzen dira. Besteak mintzen dituzten, "aurreiritzi matxistak, arrazistak, homo, les eta transfo-boak...". Une horretan hasten da ziurrenik, egitasmo honen fase garrantzitsuena; aurreiritzien aurkako

ARREMANITZ KOOPERATIBA

"Lanketa ikasleekin egiten dute, banaka, taldean. Norberak bere buruarekin eta inguruarekin duen harremana nolakoa den aztertzen dute. Talde barruan, neska-mutilak nola harremantzen diren"

lanketa. Lehenbiziko pausoa, azalerratzte lana. "Egoerak gertatzen ahalgintzen gara. Gazteek oso ondo dakite diskurtso zuzena zein den, hori errepikaraztea alferrikakoa da. Egoerok probokatu nahi izaten ditugu, jolas, ariketa edo gelan gertatzen diren egoera ezberdinen bidez. Bat batean konturatzen zara nola atera diren aurreiritziak. Tratu ezberdina eman ote dion batak besteari, neska edo mutila izateagatik, kanpotarra izan, edo genero arauari ez erantzuteagatik. Orduan, hori guztia mahai gainean jarri eta hori izaten da langaia", dio Arremanitz kooperatibako kide Asier Bagliettok.

Erronka, ikasitako diskurtsoa barneratzea

Aurreiritziez jabetu, kontzientziatu, zalantzan jarri, eta aurreiritziok desagiteko lanketa bideratzen dute gero. Erruduntasunetik urrun, onar-

penetik, pertsonaren ontasunetik, tratu ona sustatuz. "Mundu sexista, arrazista honetan bizi gara eta aurreiritziak ezinbestean denoi aterako zaizkigu. Ez dago ezer txarrik horretan. Kontua da zer egin nahi dugun, buruan daukagun material horrekin guztiarekin. Guri ateratzen zaizkigu aurreiritziak, gu gaude ohituta tratu txarreko harremanetara. Goazen horretaz jabetzera, barruan dugu ondo tratatzeko gaitasuna, zaintzeko, elkar ikusteko gaitasuna eta goazen horrekin lan egitera", dio Bagliettok. Aurreiritzien inguruan, "ikasiaz dugun diskurtso zuzena" gure jarrerekin lotzea lortu nahi dute. Hitzez adierazten duguna, benetan barneratua izatea.

Aholkularitza eta informazioa eskaintzen dute

Lanketa hau bizitza osoko lana dela gogorarazten dute. Horregatik beharrezkotzat ikusten dute, ikastetxeetan burutzen duten lanketa hezkuntza zentroetatik kanpora ere hedatzea, ez baita eskolako kontu bat. "Tratu onen aldeko aliatuak bilatu behar dira. Herrian sustatzea interesatzen zaigu", dio Wolframek. Udal Parekidetasun Saitetik sustaturiko egitasmoak, aholkularitza eta formazioa eskaintzen ditu. Informazio gehiago:

943 377 110

Usurbilgo Eragile Feminista berriaren lehen deialdiak

Usurbilek eragile feminista berria du duela hilabetetik, adin ezberdinetako 12 emakume taldea. Jorrazten hasi diren bide honetan, ekimen sorta antolatu dute, azaroaren 25ean gogoan izango dugun Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira. Hauxe momentuz, lotu duten egitaraua:

Azaroak 21, ostirala

19:00ak aldera, hitzaldia Potxoenean: "Indarkeria sinbolikoa eta mikromatxismoak".

Azaroak 22, larunbata

10:00 Maskulinitate tailerra gizonentzat. Hizlaria: Iosu Isasias. Antolatzaileak: elkarlanean, Zarauzko Gizon Taldea eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila.

Azaroak 23, igandea

18:00 Sutegiko auditorioan: "Las mujeres de verdad tienen curvas" film proiektzioa. Ondoren, solasaldia.

Azaroak 25, asteartea

Emakumeon Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna 18:00 Elkarretaratzea Mikel La-boa plazan.

Azaroak 30, igandea

Erle Eguna 12:30-13:00 aldera, Usurbilgo Eragile Feministaren aurkezpena eta elkarretaratzea frontoian.

Oharra: behin behineko egitaraua. Aldaketak egon daitezke.

Antolatzailea: Usurbilgo Eragile Feminista.

NOAUA! Kulturaldiaren bigarren txanpa

Kantuan eta film emanaldi batekin joan berri zaigu NOAUA!ren Kulturaldiko lehen asteburua. "Piano bat bertsotan" emanaldian, publikoa jaun eta jabe izan genuen. Ikus-entzuleek agindutako euskal abestiak kantatu zituzten musikariek. Biharamunean, "Emak Bakia" filma proiektatu genuen. Lan honen zuzendaria Sutegin izan genuen, filmari buruz hizketan. Eta igandean, orain arteko ekitaldi jendetsuena; 60 lagun inguru bildu ziren Pettiren emanaldian.

Kulturaldia hasi besterik ez da egin. Azken traka, egunotan:

Azaroak 13, osteguna
19:30 Kataluniari buruzko solasaldia Sutegin. Martxelo Otamendi eta Mikel Aramendirekin.
 Sarrera: doan.



Kantuan aritzeko moduko saioa izan zen "Piano bat bertsotan" izenekoa.

Azaroak 15, larunbata
22:00 "Desentxufatuak" antzezlanaren Sutegin. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreekin.
 Sarrera: 10 euro, egunean bertan. Aldez aurretik 9 euro Bordatxo, Artzabal, Lizardi eta NOAUA!ko egoitzan. NOAUA!ko bazkideek 7 eurotan aldez aurretik, NOAUA!ko egoitzan.

Azaroak 16, igandea
08:30 Mendi buelta frontoitik abiatuta, Andoaingo Garate estudiario. Kaki Arkarazo herritarren eskutik, bisita gidatua Garate estudioan.
 Oharra: ibilbide amaieran, itzulerara autobusez (6 euro) edo oinez egin ahal izango da. Autobuserako izena aurrez eman behar da: 943 360 321
 elkarte@noaua.com

Larunbateko antzerkian, umorea nagusi

Duela urte batzuk publikoaren harrera beroa izan zuten 'Euskara sencilloaren manifestoa' eta 'Larru Haizetara' antzezlantekin. Bi obra horietako atalik onenak bilduta osatu dute 'Desentxufatuak'.

"Artifizio handirik gabe agertu nahi dugu publiko aurrean, aurreko ikuskizunen eskenarik arrakastatsuenetaz baliatuz kalitatea konzentratua eskaintzeko", hedabideen aurrean adiztera eman dutenez.

Sinopsia, edo

Bi euskara ikasle, "munduko euskaldunberriker zaharrenak", berrogei urte daramate euskaltegian eta oraindik... Publiko artera agertzen dira euren frustrazio, desio eta kexak adierazteko. "Desentxufatuak" katarsi ariketa bat da. Euskara ikasleentzat bada, jakina, euren isla (deformatua) ikusten dutelako eskenatokian. Baina euskara ikasle ez direnentzat ere.



Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak dira obra honetako aktoreak.

Azaroak 15 larunbata
22:00 "Desentxufatuak" Sutegin
 Sarrera: 10 euro egunean bertan. Aldez aurretik 9 euro Bordatxo, Artzabal, Lizardi eta NOAUA!n. NOAUA!ko bazkideek 7 eurotan aldez aurretik, NOAUA!ko egoitzan.

NOAUA!ko bazkideen artean, sarrera zozketa

Larunbateko "Desentxufatuak" antzezlana ikustera joateko bina sarrera bikoitz zozketatuko ditugu ostiralean, NOAUA!ko bazkideen artean. Egin beharrekoa, oso erraza da; bidali email bat erredakzioa@noaua.com helbidera. Ostiralean emango dugu sarituaren berri, noaua.com atarian.

Asteburuan ere bi bazkideek, doan gozatu ahal izan zuten Kulturaldiko ekitaldiez. **Joxemari Rezola** izan zen bazkide sarituetako bat. "Piano bat bertsotan" emanaldirako bi sarrera irabazi zituen. Iruditan duzue emaztea, zozketan egokitutako bi sarrerak eskutan dituela. NOAUA!ko bazkidea izateak dituen abantailak.



NOAUA!ko bazkide egin eta opari eder bat eraman etxera

Urriaren bazkideetza kanpaina berria martxan jarri genuenetik, hainbat herritar egin dira bazkide. Orain egiten bazara bazkide, opari eder bat eskuratuko duzu: NOAUA!ren aterkia, Usurbilgo baserriak eta baserritarrak liburua, Usurbilgo Ondarea liburua eta Gipuzkoako ibilbideak batzen dituen argitalpena. Eta urtean zehar, abantaila ezberdinez baliatzeko aukera izango duzu. Nola egin bazkide? NOAUA!ra etorri eta minutu batean osatuko dizugu bazkideetza orria. Bestela, email bat idatzi elkartea@noaua.com edo telefonoz deitu 943 360 321. Kuota: 36 euro urtean.



“Zapata gorriak”, haurrentzako antzezlan Aginagan

Patata Tropikala taldearen emanaldia larunbatean 17:00etan, Aginagako ludotekan. “Bertan, txotxongiloak, antzerkia, umorea eta irudimena dantzan ikusiko ditugu, izugarritzko arte-lan batez gozatuko dugularik”, ekitaldia antolatu duen Antxomolantxa Elkartetik ohartarazi dutenez. “Zapata gorria” emanaldia larunbatean haurrentzat eta azaroaren 21ean, “Amets zirkoa salgai” helduentzat Antxomolantxa Elkarteak antolatuta baita. Bi ekitaldiotarako sarrera doan:

Azaroak 15, larunbata

17:00 Haurrentzako antzerkia, Aginagako ludotekan: “Zapata gorriak”. “Zapatari batek zapatak saltzen ditu, baina ez dira zapata arruntak, ezin ditu edonork jantzi, ausart, sentibera eta burua erabiltzen jakin behar da zapata hauek jantzeko. Amets, gure protagonista, zapatak jantziko ditu eta izugarritzko abenturan murgilduko da. Bertan, REM ametsen munduko atezaina ezagutuko du. Honek, ametsen mundua arriskuan dagoela ohartaraziko dio. Ametsek, amets gaiztoen makinatik salbatu beharko gaitu Lo azitia aurkitzen duen bitartean. Bestela guztiok, hemendik aurrera irudimena galduko dugu eta robot eta makinetan



Zapata gorriak, larunbat honetan 17:00etan Aginagako ludotekan.

bihurtuko gara. Lortuko al du?”. Taldea: Patata Tropikala.

Azaroak 21, ostirala

20:30 Helduentzako ikuskizuna Aginagako Eliza Zaharrean: “Amets Zirkoa Salgai”. “Xorroxin eta Azken Putz klownak zirko munduan urte ugari daramatzate. Baina ikuskizun berri honek, beren biziera zapuzteraino eraman ditu eta amaiera jarri behar diote beren aktore bizimoduari”.

Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarte.

Miriam Mendoza ipuin kontalaria bitan arituko da Bihurri ludotekan

Bi emanaldi eskainiko ditu ipuin kontalaria, datorren astean:

Azaroak 20, osteguna

18:00 “Ui!! Txikia naizela badakit, baina gauza pila egiten dakizkit”, 0-4 urte arteko zuzendua.

Azaroak 21, ostirala

18:00 “Landareak eta animaliak hitz egiten zekiten garai haietan...”. 4-6 urte arteko haurrei zuzendua.

Oharra: ekitaldiotarako sarrera doan. Antolatzailea: Bihurri haur ludoteka.



0-4 urtekoentzat izango da lehena, 4-6koentzat bigarrena. Sarrera doan izango da bi ekitaldietan.

Gabonetako otarrak, Xiberoko Eperra ikastola laguntzeko

laz, Eperra ikastolak izandako laguntzaren %5a, hazten ari den elkartasun ekimen honetatik jaso zuen. Usurbilen, 7.400 euro bildu ziren. 2014ko kanpaina martxan dute jada. Honatx eskura ditzakezen saski motak:

■ Ahūzki, prezioa: 39 euro

Produktuak: ardi gazta (900 gr), ahate gibela (125 gr.), bixkotx poltsa artisanala (200 gr), eztia (500 gr.).

■ Irati, prezioa: 51 euro

Produktuak: ardi gazta (900 gr.), ahate gibela (125 gr.), bixkotx poltsa artisanala (200 gr.), eztia (500 gr.) eta axoa xahalki xehatua saltsan (750 gr.).


Otarrak eskatzeko: aihert@gmail.com edo 636 265 592. Izena eman bestela, tabernetan jarriko diren karteletan.

Epea: azaroak 30. Oharra: otarrak abenduaren 15 aldera helduko dira.

Antolatzailea: Nafartarrak.

Bittor Kapanagaren liburu aurkezpena, Gontzal Mendibilek girotua

Bittor Kapanagaren “Euskera erro eta gara” liburu aurkezpena, azaroaren 21ean 19:00etan, Sutegiko auditorioan. Liburuaren editatzaile Juan Martin Elexpuru eta Gontzal Mendibil kantariak parte hartuko dute, Nafartarrak taldekoek antolaturiko ekitaldian. Mendibilek Kapanagaren letradun abestiak kantatuko ditu. Esaterako, “Arabana bagare”, abesti ezagun honen letraren sortzailea baita Kapanaga, baina askoz gehiago ere egin du euskararen alde. Horretaz jardungo dute datorren astean Sutegin.



Gontzal Mendibil Sutegin izango da datorren astean, azaroaren 21ean.

50 urte bete ditu Aginagako soziedadeak

Mende erdira heldu da aginagarren biltoki nagusietako bat; Atarialde soziedadea. Apirilean bete zituen 50 urte. Orduetik hilabete batzuk pasa dira, baina ez dute 2014a agurtu nahi, urtemuga berezia ospatu gabe. Larunbat honetan, azaroaren 15ean atzoko eta gaurko bazkideek, nahiz herritarrek hitzordua dute elkartean. Omenaldia, taldeko argazkia eta bazkari eder baten bueltan, Atarialderen 50 urteak ospatzeko aukera ederra izango dute.

60. hamarkada hasieran zabaldu zuten Aginagako elkartea. Kirol elkarte gisa. Gogoan izan, urte haietan puri-purian zen Aginaga. Onenen artean, arraun munduan. Kontxako pare bat bandera ere etxeratu zituzten urte haietan. Aipatu moduan, kirol bilgune gisa jarri zuten martxan, gerora, urteotan, bai Aginaga herri guneko zein landa eremuko bizilagunen elkargune nagusietakoa izango zena.

Ibilbide luze honen urte gehienak, egoitza alokairuan zutela egin dituzte. 2006. urtera arte hain zuzen. Duela zortzi urte soziedadea erostea erabaki zuten. Mugarri garrantzitsua erosketarena, zenbait aldaketa ekarri baitzuten. Tartean izenarena. Orduetik Atarialde izena du elkarteak, nahiz ziur herritar askorentzat, Oriako erribera aldean kokaturiko egoitzak, Aginagako soziedadea izaten jarraituko duen. Izena bakarrik ez, egoitzari kultur elkarte izaera eman zitzaion erosketarekin eta bazkideak elkarteko jabetza eskuratzeko aukera izatera igaro ziren.

Gaztetu nahian

Egun 73 bazkide ditu Atarialde elkarteak. Pixkanaka gorantz omen doa bazkide kopurua. Baina diotenez, "elkarte guz-



Larunbat honetarako antolatu dituzte 50. urtemugako ospakizunak.

LARUNBAT HONETAN

Hamaiketakoaren garaian, "elkarte guztietako hormetan zintzilik egon ohi den bazkideen argazkia aterako dute"

tietako arazoa dago hemen, jubilatutako asko, gazte gutxi, eta diru gutxi". Bazkideen perfila gaztetu nahian dabilta. Be-launaldi berria, gazteak pixkanaka hurbiltzen ari dira soziedadara. Oso gustura daude. Horregatik, bazkideetza egitera animatzen dituzte herritarrik; egoitzako erabiltzaile izateko, edota baita biltokiaren inguruan hartu beharreko erabaki zein arduetan parte hartu hartu ahal izateko.

Ametsa: 100 bazkide izatea berriro

Elkartea sortu zuteneko bazkide kopurura heldu nahi lukete; ehun bat lagun izatera hain zuzen. Helduenek bazkideetza eusten diote, baina urteotan gazte batzuk ere elkarteko dinamikan murgildu dira. Bai gizonezko eta baita emaku-

mezkoak ere. 2004-05 urte inguruan eman zuen elkarteak, soziedadeko ateak herritar orori zabaltzeko pausoa.

Bazkaritarako izen ematea, ostegunera arte

Bazkide nahiz herritarrik daude gonbidatuak, azaroaren 15eko ospakizunetara. Bazkari baten bueltan bilduko dira guztiak. Kontuan izan, ostegunean, azaroak 13, itxiko dute otordurako izen ematea. Bi hitzordua ospatuko dira bazkalarretik; hamaiketakoaz gain, batetik, elkarte guztietako hormetan zintzilik egon ohi den bazkideen argazkia aterako dute. Lehendik dutena, zuri beltzeko argazkia baita, duela lau bat hamarkadakoa. Eta noski, urtemuga baliatu nahi dute, bazkideen irudia eguneratzeko. Laster beraz, soziedadeko horma, irudi berriz hornituko dute. Eta baita Aginagak irabazitako estropadetako Kontxako bi banderekin ere. Duela urte batzuk arte, ikusgai zeuden soziedadean, baina itxura berritzen dabilta aginagarren memorian bizirik diren bi garaipenak. Laster berriz ikusgai jarriko dituzte Atarialden.

Aginagako Elkartearen 50. urteurrena Azaroak 15, larunbata

■ 12:00 Hamaiketako soinu-jotzaileekin.

■ 13:00 Omenaldia bazkide sortzaileei.

■ 13:30 Bazkide guztien argazkia.

■ 14:00 Bazkari irekia:

Menua: langostinoak, marisko krema, legatza, karrillerak, platanozko izozkia txokolatz estalia, kafea eta kopa.

Prezioa: 20 euro.

Izen ematea: azaroaren 13a baino lehen, elkarteko tabloian izena emanda. Bestela, deitu 665 718 163 (Aldapa) edo 644 565 985 (Miguel Angel) telefono zenbakietara. Ondoren, bertsolariak.

Antolatzailea: Aginagako Atarialde Elkarte.

Erroizpe elkarteko batzarra larunbatean

Urteko batzarra ospatuko dute, azaroaren 23an, goizeko 11:00etan Txokoaldeko elkartean bertan. "Elkarteko zuzendaritzak dei egiten die bazkideei etor daitezen, urteko martxaren berri emango baita, diru kontuekin batera", elkartetik adierazi dutenez.



BAIETZ GUREAN!: ENPRESETAN EUSKARA NORMALTASUN GEHIAGOZ ERABILTZEN LAGUNTZEKO EGITASMOA

Zure enpresan nola egiten da?

Buruntzaldeko udalak eskualdeko enpresak euskalduntzeko lanetan ari dira "Baietz Gurean!" egitasmoaren baitan. Aholkularitza eta diru-laguntza lerroen bitartez urteik urtera gehiago dira parte hartzen duten enpresak.

2014ean sinatutako hitzarmenak



Lasarte-Oriako Udalak Baietz Gurean! Legitasmoaren barruko hiru hitzarmen sinatu ditu herriko hiru enpresekin, Hostelera del Norte, Factory eta Aldikar. Laguntza honen bitartez, enpresek euskara gehiago erabiliko dute.



Hernanin aurten bi enpresekin egin da hitzarmena, Katealegia eta Spora Ingurumen Zerbitzuak.

Latz enpresaren ordezkaria Miguel Angel Lazkano Alkain, eta Andoaingo alkatearen Ana Carrere. Andoainen Latz eta Orma-Jaki Ona S.L. enpresekin dago hitzarmena.

Enpresak

Buruntzaldeko udalen laguntzarekin euskara normalizatzeko urratsak eman dituzten Buruntzaldeko enpresa batzuk:

ANDOAIN
Orma-Jaki Ona
Latz
HERNANI
Adarra
Katealagaia
Spora
Perfyde
Hator Aholkularitza
Selac
LASARTE-ORIA
TSST
Aldikar autoak
Comercial Hostelera
Factory
Telesonic
USURBIL
Talleres M. Echeverria
Fagor Berriola
Fagor V. Luzuriaga
S. Izaguirre

Buruntzaldean, beren aldetik edota eskura dau den beste diru-laguntza batzuk baliatuz, euskararen erabilera normalizatzeko urratsak eman dituzten beste enpresa batzuk ere badira.

Iritziak



Langileen %90 euskalduna da eta leuskaraz komunikatzen da. Aldaketa kalitate, prebentzio eta banatzen zaizkien beste zenbait txostenetan dago. Orain euskaratuta daude.



Langilegoa euskalduna izanda, zerbait egin behar zen gure eguneroko lanean ere euskara txertatzeko. Orain, barne dokumentazio guztia euskaraz daukagu "pedido"-ak "eskaera" bihurtu dira. Euskaldunok halakoak egin behar ditugula uste dugu.



Baietz Gurean!

Lan  Hitz

 bai
euskarari

**Eta zure
enpresan non
zaudete?**

H
E
L
M
U
G
A



Kilometroak 2015eko Erronka diseinatzen



Tolosan ospatu zen iaz, eta aurten Orion. Kilometroak egunez, Gipuzkoako ikastetxeak, tartean Udarregi Ikastolako DBHko ikasleak lehiari jarri izan dituen Erronka ekimenak harrera ezin hobea izan du Gipuzkoako ikastolen aldeko festaren azken bi edizioetan. 2015ean ere Usurbilen hitzordu hau antolatzen lanean dabil jada batzordeetako bat. Erronka ederra dute esku artean.

Kilometroak denda, laster izango da zabalik



Kilometroak aurkeztearekin batera, laster irekiko dute baita Kilometroak 15eko denda. Bertan eskuragarri izango duzue, lelo, irudi eta gainerakoez hornituriko arropa polit askoa. Irekierarako gutxi falta da. Inauguraziorako dena prest izateko, auzolanean dabil jo eta su irudiko muntaketako batzordea.

GOIEGI

Jatetxea- Restaurante



